


# EMAKUMEARI ETA JOKOARI BURUZKO PANORAMIKA

## Zifrei buruzko txostena

2022

JOKOAREN
EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DEL JUEGO




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
**https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua**

Argitalpen elektronikoa

**ARGITALPENA:** 1.a argitaletxe honetan, 2024ko urria

**©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Segurtasun Saila

**ARGITARATZAILEA:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**INTERNET:** www.euskadi.eus/argitalpenak
www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/jokoaren-euskal-behatokia

**EGILETZA:** Jokoaren Euskal Behatokia

**IKERKETA LANTALDEA:** Jonatan García Rabadán *Ikertzaile Nagusia* (UPV/EHU)
Iraide Fernández Aragón (UPV/EHU)
Aidée Baranda Ortiz (UPV/EHU)
Eva Jiménez Martin (UPV/EHU)

**DISEINUA:** IPAR, Soc. Coop.

**ISBN:** 978-84-457-3794-1

# Aurkibidea

**1. Sarrera** . . . . . . . . . . **6**

**2. Datu iturriak eta metodologia** . . . . . . . . . . **9**

**3. Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa** . . . . . . . . . . **11**
- 3.1 Jokoaren maiztasuna . . . . . . . . . . 12
- 3.2 Jokoari buruzko balorazioa eta pertzepzioa . . . . . . . . . . 16

**4. Autodebekatuak** . . . . . . . . . . **21**
- 4.1 Erregistro autonomikoa gehi estatukoa . . . . . . . . . . 22
- 4.2 Erregistro autonomikoa eta estatukoa. . . . . . . . . . . 24
- 4.3 Autodebekatuen erregistroa, Araba . . . . . . . . . . 26
- 4.4 Autodebekatuen erregistroa, Bizkaia . . . . . . . . . . 27
- 4.5 Autodebekatuen erregistroa, Gipuzkoa . . . . . . . . . . 28

**5. Jokoarekin lotutako langileak** . . . . . . . . . . **30**
- 5.1 Elkarteetako langileak . . . . . . . . . . 31
- 5.2 Jokoaren sektoreko enpresetako langileak . . . . . . . . . . 32
  - 5.2.1 Apustu enpresak . . . . . . . . . . 33
  - 5.2.2 Bingoak . . . . . . . . . . 34
  - 5.2.3 Kasinoak . . . . . . . . . . 34
  - 5.2.4 Sektoreko beste enpresa batzuk . . . . . . . . . . 35

**6. «B» motako makinak.** . . . . . . . . . . **37**
- 6.1 «B» motako makinak: datuak . . . . . . . . . . 38
- 6.2 Jardunbide egokiak . . . . . . . . . . 39
- 6.3 Jardunbide txarrak. . . . . . . . . . . 44

**7. Ondorioak** . . . . . . . . . . **59**

## Taulen eta grafikoen aurkibidea

### Taulen aurkibidea

| | | |
|---|---|---|
| 1. taula. | EAEko jokoaren inguruko gizarte pertzepzioari eta joko ohiturei buruzko 2019ko inkestaren lagina | 12 |
| 2. taula. | Azken urtean jokatu duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019an eta 2022an (%) | 12 |
| 3. taula. | 2019an eta 2022an egunero edo astero jokatu duten pertsonen ehunekoa (%) | 13 |
| 4. taula. | Online jokatu duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%) | 14 |
| 5. taula. | Jokatzen hasitako adina, sexuaren arabera (%) | 15 |
| 6. taula. | Azken 12 hilabeteetan proposatutako egoeraren bat bizi duten EAEko jokalariak, sexuaren arabera, 2019 (%) | 16 |
| 7. taula. | EAEko biztanleen jokoaren pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%) | 17 |
| 8. taula. | EAEko joko maila (maiztasuna, gastua) handia eta oso handia dela uste duten EAEko biztanleak | 17 |
| 9. taula. | EAEn, oro har, pertsonek duela urte batzuk baino gehiago jokatzen dutela deritzoten EAEko biztanleak | 18 |
| 10. taula. | Jokatzeko orduan jokatzeko ohitura alkoholarekin, tabakoarekin edo mendekotasuna eragiten duen beste substantziaren batekin lotzen duten EAEko biztanleak, sexuaren arabera, 2019 (%) | 19 |
| 11. taula. | Jokoa diru sarrerak sortzeko ona dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%) | 19 |
| 12. taula. | Jokoa entretenimendu eta aisia mota bat dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%) | 20 |
| 13. taula. | Jokatzen duten pertsona gehienek erantzukizunez jokatzen dutela eta mugak ezagutzen dituztela uste dutenen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%) | 20 |
| 14. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, 2022 | 23 |
| 15. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoan eta estatuko erregistroan, 2022 | 25 |
| 16. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Araba, 2022 | 26 |
| 17. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoan, Araba, 2022ko azaroa | 27 |
| 18. taula. | Autodebekatuak estatuko erregistroan, Araba, 2022 | 27 |
| 19. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Bizkaia, 2022 | 27 |
| 20. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoan, Bizkaia, 2022 | 28 |
| 21. taula. | Autodebekatuak estatuko erregistroan, Bizkaia, 2022 | 28 |
| 22. taula. | Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Gipuzkoa, 2022 | 29 |

## Taulen eta grafikoen aurkibidea

| | | |
|---|---|---|
| 23. taula. | Autodebekatuak erregistro automatikoan, Gipuzkoa, 2022 | 29 |
| 24. taula. | Autodebekatuak estatuko erregistroan, Gipuzkoa, 2022 | 29 |
| 25. taula. | Jokoarekin lotutako arazoengatik elkarteen erabiltzaile izandakoak Euskadin, 2022 | 31 |
| 26. taula. | Joko arazoak dituzten pazienteei laguntzeko elkarteetako langile lan kontratudunak Euskadin, 2022 | 32 |
| 27. taula. | Joko arazoak dituzten pazienteei laguntzeko elkarteetako langile boluntarioak Euskadin, 2022 | 32 |
| 28. taula. | Apustu enpresetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 33 |
| 29. taula. | Apustu enpresetako langile lan kontratudunak sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 33 |
| 30. taula. | Bingoetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 34 |
| 31. taula. | Bingoetako langile lan kontratudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 34 |
| 32. taula. | Kasinoetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadi, 2022 | 35 |
| 33. taula. | Kasinoetako langile lan kontratudunak sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 35 |
| 34. taula. | Sektoreko beste enpresa batzuetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 36 |
| 35. taula. | Sektoreko beste enpresa batzuetako langile lan kontratudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022 | 36 |
| 36. taula. | B motako makinak, eduki bisualaren arabera | 38 |
| 37. taula. | B motako makina sinpleak, eduki bisualaren arabera | 39 |
| 38. taula. | B motako makina aniztunak, eduki bisualaren arabera | 39 |

### Grafikoen aurkibidea

| | | |
|---|---|---|
| 1. grafikoa. | Joko mota nagusietan jokatu duten EAEko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 (%) | 13 |
| 2. grafikoa. | Joko mota nagusietan jokatu duten EAEko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera, 2022 (%) | 14 |
| 3. grafikoa. | EAEko biztanleek jokatzeko arrazoi nagusien ehunekoa, sexuaren arabera (2019) | 15 |
| 4. grafikoa. | Etorkizuneko jokoarekin lotutako arazoei buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 (%) | 18 |
| 5. grafikoa. | Etorkizuneko jokoarekin lotutako arazoei buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2022 (%) | 19 |




# 1. Sarrera

# Sarrera

Dokumentu honen helburu nagusia da administrazio publikoei informazio eguneratua ematea genero desberdintasunei eta jokoaren barruan izandako bilakaerari buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko estrategiak eta politikak defini ditzaten diagnostiko sendoagoetan oinarrituta. EAEko jokoari buruzko errealitatea zeharkako genero ikuspegitik ulertzeko, hainbat aldagai hartu ditugu erreferentziatzat jokoaren esparruan. Alde batetik, jokoaren prebalentziari eta balorazioari buruzko informazioa jaso dugu, *Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte pertzepzioa eta joko ohiturak* txostenaren bidez (IKEI, 2019); Autodebekatuetan izena emandako pertsonen datuak kontsultatu ditugu, bai EAEn, bai estatuan. Sektoreko elkarte- eta enpresa-sarea aztertu nahi izan dugu. Eta, azkenik, EAEn homologatuta dauden B motako makinen azterketa bisuala egin dugu.

Txosten horretan jasotako datu guztietatik, sexuari buruzkoak baino ez ditugu aztertuko; hau da, gizonen eta emakumeen artean zer alde dauden EAEko jokoaren ohiturei eta pertzepzioari dagokienez.

Dokumentu honek xede deskriptibo hutsa du, eta bere helburua ez da aurkitutako desberdintasunen kausak aztertzea edo testuinguruan ipintzea. Aztertutako alderdietan topaturiko emakumeen eta gizonen arteko aldeak identifikatzen ditu, eta, eskura dagoen informazioak horretarako aukera ematen duenean, saiatzen da adierazten desberdintasun horiek areagotzeko edo murrizteko joera duten, gizarteak berdintasunaren arloan izan duen bilakaeraren berri izate aldera.

Oro har, gizonen artean ikusten da ausazko jokoen prebalentzia handiena, eta gizonezkoak dira autodebekatuen txostenetan gehien ageri direnak (1.333 gizon 2021eko abenduan, eta 371 emakume). Mendekotasuna progresioan duten gizonezko jokalariak emakumeak halako hiru baino gehixeago direla ikusten da.

Jokoaren Behatokiaren mailan *Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak* azterlana dugu (IKEI, 2019). Bertan, EAEko genero desberdintasunen bilakaera ikus daiteke joko tipologiaren arabera. Genero desberdintasunak daude gizonen eta emakumeen joko tipologia aintzat hartuta. Horrela, emakumeak eta gizonak maiz aritzen diren jolas kopuruari dagokionez, sexuen arteko alde argia dago. Gizonen % 5,1ek jokatu dute ostalaritzako makinetan, baina emakumeen % 1,4k baino ez. Gauza bera gertatzen da apustu lokalei dagokienez; gizonen % 3,5 joan dira, eta emakumeen % 1 bakarrik. Azkenik, kasinoari buruzko datuek ere erakusten dute alde deigarria: gizonen % 3,2 eta emakumeen % 0,6 joan dira.

Jokoaren maiztasunari dagokionez, azken 12 hilabeteetan egunero edo astean behin edo zenbait aldiz jokatu dutela esan duten pertsonetan badira desberdintasun batzuk zenbait aldagai kontuan hartuta. Horrela, gizonezkoek jokatzen dute gehiago egunero edo astero (% 19,3) emakumeek baino (% 14,7).

Lan hau lau zati handitan egituratu da. Lehenik eta behin, datu iturriak eta aplikatutako metodologia daude. Bigarrenik, EAEko testuinguruko jokoaren maiztasunari, ohiturei

eta balorazioari buruzko datuak aipatzen dira, denboran konparatuta. Hirugarrenik, autodebekatuetan erregistratutako pertsonen datuak erakusten dira. Jarraian, jokoaren sektorearekin zerikusia duten elkarteen eta enpresen egituraren azterketa egin dugu. Jarraian, EAEn instalatutako makina modelo desberdinak ikusiz egindako azterketaren bidez lortutako informazioa ageri da. Azkenik, adierazleen ondorio garrantzitsuenak, genero ikuspegia azterlanaren ardatz nagusitzat hartuta.



# 2. Datu iturriak eta metodologia

## Datu iturriak eta metodologia

Txosten honetan azaldutako adierazleak askotarikoak dira, eta horrelakoak dira, halaber, iturriak eta haien azterketa.

Jokoaren azterketaren, maiztasunaren, ohituren eta balorazioaren lehen punturako, IKEI Research & Consultancy-ren *Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak* (2019) txostenaren datuak erabili ditugu. Txosten horrek, izan ere, datu horiek sexuaren arabera bereizita aipatzen zituen. Batzuetan, datu horiek UPV/EHUk egindako *Jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta balorazioa Euskadin* (2022) ikerlanean lortutakoekin aldera daitezke.

Horrenbestez, bikoitza da atal honen helburua: Alde batetik, txostenaren aldagai nagusiei dagokienez gizonen eta emakumeen arteko balioak alderatzea. Bestalde, balio horiek 2019 eta 2022 urteen artean izan duten bilakaera alderatzea.

Bigarren atalak, autodebekatuak izenekoak, beren burua jokotik baztertu duten pertsonak aztertzen ditu; hau da, Estatuko erregistroan daudenak, onlineko jokoei dagokienez, eta erregistro autonomikoan daudenak, EAEko eskumeneko jokoetarako. JEBk berak helarazi ditu Autodebekatuen bi erregistroak. Datu horiei esker, estatuko eta autonomia erkidegoko erregistroetako gizonen eta emakumeen arteko alderaketa egin daiteke, bai eta, aldi berean, lurralde historikoetako intzidentzia eta azken urtean izandako bilakaera.

Hurrengo puntuan, jokoaren sektoreko elkarte eta enpresetan dauden langileen azterketa egin da, genero ikuspegia kontuan hartuta. Hala elkarteek nola enpresek aktiboki lagundu dute, eta eskatutako datuak jakinarazi dituzte. Informazio horri esker, bi erakundeen barne egitura aztertu ahal izan dugu, gizonen eta emakumeen presentzia maila, posizio eta azpisektore desberdinen arabera bereizita, aurrerago ikusiko den bezala.

Azkenik, azterketa bat egin dugu EAEn homologatuta dauden B motako makinen modeloak ikusiz. Makina horietatik eduki sexualizatua zer ehunekok duten jakitea da azterketa horren helburua; emakumeen/pertsonaia bizidunen irudi hipersexualizatuak zenbat makinak erakusten dituzten ezagutzea, alegia. Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren lankidetzari esker egin ahal izan dugu azterketa hori, EAEko lurraldean homologatutako 339 modeloei buruzko irudiak eta informazioa eman baititu. Gehienetan, nabarmentzekoa da makinen aurrealdea baino ez dela ikusten irudietan, eta makinak ez dira osoki ikusten.

*Emakumeari eta jokoaren buruzko panoramika. Zifrei buruzko txostena 2022* azterlan monografikoak UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Sailak egin du. Jonatan García Rabadán, Iraide Fernández Aragón eta Julia Shershneva irakasleek eta Aidée Baranda Ortiz ikertzaileak osatzen dute sail hori.




# 3. Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

## Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

IKEIren *Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte pertzepzioa eta joko ohiturak 2019* txostena hainbat kuota kontuan hartuta egin zen, generoarena haien artean, eta gizonen eta emakumeen arteko alderaketa egin daiteke beraz.

1. taula. EAEko jokoaren inguruko gizarte pertzepzioari eta joko ohiturei buruzko 2019ko inkestaren lagina

| | Maiztasuna | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Emakumeak | 665 | 54,8 |
| Gizonak | 549 | 45,2 |
| **Guztira** | **1.214** | **100** |

*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

Txosten horretan, izenburuak adierazten duen bezala, joko ohiturei buruzko informazioa dago, hala nola prebalentzia, joko motak edo arrazoiak, eta ausazko jokoari eta apustuei buruzko iritzi eta pertzepzioak. Datu horiek berriz aurkeztuko ditugu txosten honetan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak edo antzekotasunak azpimarratzeko, eta, horrez gain, zenbait kasutan luzetarako konparazioa egingo dugu JEBk eta UPV/EHUk egindako azken ikerketarekin.

### 3.1. Jokoaren maiztasuna

2019an, gutxienez behin jokatu edo apustu egin zutela adierazi zuten biztanleen % 67,3k. Datu hori handixeagoa zen gizonetan emakumeen artean baino; ehuneko 4,7 puntuko aldea zehazki. 2022an, guztizko datua 9 puntu igo zen, eta jokoaren prebalentzia handiagoa zegoen oraindik gizonetan emakumeen artean baino, baina 2 puntuko aldea zegoen orduan.

2. taula. Azken urtean jokatu duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019an eta 2022an (%)

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 65,2 | 75,3 |
| Gizonak | 69,9 | 77,5 |
| **Guztira** | **67,3** | **76,3** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

Egunero edo astero jokatu zuten pertsonen ehunekoa % 16,8ra jaitsi zen 2019an. Aldeak daude pertsonen generoari dagokionez; izan ere, datu hori % 19,3 zen gizonen artean, eta % 14,7 emakumeetan. 2022an jokoaren maiztasunari buruz galdetu da,

## Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

onlineko eta aurrez aurreko modalitateak bereizita, eta bi kasuetan handiagoa da maiztasuna gizonetan emakumeen artean baino.

3. taula. 2019an eta 2022an egunero edo astero jokatu duten pertsonen ehunekoa (%)

| | 2019 | 2022 | |
|---|---|---|---|
| | | Aurrez aurrekoa | Online |
| Emakumeak | 14,70 | 24,1 | 0,3 |
| Gizonak | 19,30 | 32,3 | 1,4 |
| **Guztira** | **16,80** | **28,1** | **0,9** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

Gizonek emakumeek baino maiztasun handiagoan jokatzen dutela ez ezik, zaletasunetan ere bazeuden aldeak (1. grafikoa). EAEko gizartean hedatuen dauden jokoak estatuko loteriak eta apustuak eta ONCE dira (ohikoagoak dira emakumeetan gizonen artean baino). Oso urruti daude, ondoren, ostalaritzako makinak edo B motako makinak (txanpon makinak), bingo aretoak, kasinoak eta joko aretoak. Kasu horretan, horrelako jokoak nahiago dituztenetan gizonen ehuneko handiagoa dago emakumeena baino.

1. grafikoa. Joko mota nagusietan jokatu duten EAEko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 (%)




*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

2022an, bere horretan jarraitzen du joko zaletasunen ereduak. SELAEren eta ONCEren mendeko jokoak dira oraindik hedatuenak, emakumeen artean batez ere. Gizonek interes handiagoa dute B motako makinetan, ONCEren bat-bateko loterian baino gehiago. Gainerakoak, bingoa, kasinoak eta apustu etxeak edo joko aretoak oso urruti gelditzen dira (2. grafikoa).

2. grafikoa. Joko mota nagusietan jokatu duten EAEko biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera, 2022 (%)




*Iturria:* Jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta balorazioa Euskadin 2022

EAEko biztanleen % 2k onlineko jokoa —ibilbide hasiberria duen modalitatea— hautatu zuten 2019an, eta 2022an, berriz, % 3,2ra igo zen ehuneko hori. Oraingoan ere badago gizonen eta emakumeen arteko alderik; izan ere, gizonek hartzen dute gehien aukera hori (% 2,7), emakumeekin alderatuta (% 1,5) 2019an; % 5,2 eta % 1,1, berriz, 2022an, hurrenez hurren.

Kasu horretan, bitxia da online jokatzen duten emakumeen ehunekoa murriztu egin zela aztertutako aldian; gizonen ehunekoa, aldiz, bikoiztu egin da ia.

4. taula. Online jokatu duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 1,5 | 1,1 |
| Gizonak | 2,7 | 5,2 |
| **Guztira** | **2** | **3,2** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

Pertsonak jokatzera bultzatzen dituzten arrazoiei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: dirua irabaztea, kausa sozial bat, denbora pasatzea eta beste arrazoi batzuk (3. grafikoa). Gizon gehiago daude dirua irabazteko eta denbora pasatzeko jokatzen dutenen artean (% 66,7 eta % 24,4; emakumeen kasuan, berriz,

% 63,4 eta % 10,2, hurrenez hurren). Aitzitik, emakumeek nabarmen gehiago aipatzen dute kausa sozial baten ondorioz jokatzen dutela (% 23,8), gizonen aldean (% 12,8).

Mendekotasunagatik jokatzeari buruzko datua, gainerako arrazoiekin alderatuta txikia bada ere, nahiko azpimarragarria da, gizonek baino ez baitute aipatzen.

3. grafikoa. EAEko biztanleek jokatzeko arrazoi nagusien ehunekoa, sexuaren arabera (2019)




*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

Jokoan hasteari buruzko informazioari dagokionez, jokatzen dutenen ia % 20 adingabe zirenean hasi ziren (5. taula). Datu handi samarra, jokoa adin nagusiek baino ez dutela baimenduta kontuan hartuta .

Beste behin ere, alde nabarmenak ikusten dira gizonen eta emakumeen artean; izan ere, gizonen % 29,6 hasten dira adingabe direnean, eta emakumeen % 11,3 soilik, ia hiru aldiz gutxiago.

5. taula. Jokatzen hasitako adina, sexuaren arabera (%)

| | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|---|---|---|---|
| <18 | 11,3 | 29,6 | 19,9 |
| 18-24 | 36,5 | 41,9 | 39 |
| 25-34 | 18,8 | 28,9 | 24,2 |

*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

Joko ohiturei buruz galdetzeaz gain, arriskuko jokoaren edo joko problematikoaren ondoriozko zenbait ideia/egoerari buruz ere galdetu zen (6. taula). Horri dagokionez,

% 3,7k onartu zuten jokoak arazo ekonomikoak edo sozialak zuzenean edo beren ingurunean ekarri zizkiela; ehuneko hori handixeagoa izan zen emakumeetan (% 4,4) gizonen artean baino (% 3). Pertsonen % 2,6k adierazi zuten berriz jokatu zutela galdutako dirua irabazteko; ehuneko hori handixeagoa zen gizonetan (% 3,1) emakumeen artean baino (% 2,1).

% 1,3 errudun sentitzen zen joko ohiturengatik, batez ere gizonak (% 2,6), eta EAEko biztanleen % 1ek arazoei ihes egiteko jokatu zuten; azken hori ere bazen ohikoagoa gizonen artean (% 1,7) emakumeetan baino (% 0,5).

Gizonen % 1,7k aitortu zuten jokoaren ondorioz osasun arazoak izan zituztela, hala nola estresa edo angustia, eta emakume bakar batek ere ez zuen horrelakorik adierazi. Azkenik, emakumeen eta gizonen % 0,6k onartzen du diru gehiago jokatu behar izan dutela emozio bera lortzeko.

6. taula. Azken 12 hilabeteetan proposatutako egoeraren bat bizi duten EAEko jokalariak, sexuaren arabera, 2019 (%)

| | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Jokoak arazo ekonomikoak eta/edo sozialak eragin dizkizu (zuri edo zure ingurukoei) | 4,40 | 3,00 | 3,7 |
| Galdutako dirua irabazten saiatzeko itzuli zara | 2,10 | 3,10 | 2,6 |
| Errudun sentitu zara jokatzeko ohiturengatik | 0,20 | 2,60 | 1,3 |
| Arazoei ihes egiteko jokatu duzu (depresioa, antsietatea edukita) | 0,50 | 1,70 | 1 |
| Jokoak osasun arazoak eragin dizkizu (estresa, angustia) | — | 1,70 | 0,7 |
| Diru gehiago jokatu behar izan duzu emozio bera lortzeko | 0,60 | 0,60 | 0,6 |

*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

## 3.2. Jokoari buruzko balorazioa eta pertzepzioa

Azpiatal honetan, EAEko herritarrek ausazko jokoei eta apustuei buruz dituzten iritziak eta pertzepzioak azalduko ditugu. Lehenik eta behin, eta oro har, gehiengoa da jokoa txartzat edo oso txartzat hartzen duten pertsonen ehunekoa; 2019an biztanleen % 65 ziren, eta % 45 2022an. Aitzitik, ona edo oso ona irizten diotenak % 4,5 dira 2019an, eta % 11,8, berriz, 2022an. Nabarmentzekoa da, halere, 2022an bereizi egin zirela aurrez aurreko jokoaren eta onlineko jokoaren pertzepzioak, eta online jokoaren pertzepzio txarra/oso txarra ehuneko 20 puntu handiagoa izan zela aurrez aurrekoarena baino.

## Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

7. taulak erakusten duenez, jokoaren gaineko iritziak hobera egin du 2019 eta 2022 urteen artean, eta, horrez gain, emakumeen pertzepzioa gizonena baino negatiboxeagoa da; halaber, axolagabeago agertzen dira galdera horren aurrean, eta ez dutela ez ontzat ez txartzat hartzen esaten dute.

7. taula. EAEko biztanleen jokoaren pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

| | 2019 | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** |
| Oso ona | 0,2 | — | 0,3 | 0,2 |
| Ona | 5,1 | 4 | 10,8 | 12,3 |
| Ez ona, ez txarra | 23,9 | 26,2 | 39,3 | 42,9 |
| Txarra | 46,2 | 49,4 | 40 | 35,4 |
| Oso txarra | 20,8 | 17,3 | 9,3 | 9 |
| ED/EE | 3,8 | 3,1 | 0,3 | 0,2 |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

2019an, joko maila, maiztasunari zein gastuari zegokienez, handia zela uste zutenen ehunekoa % 47,3 zen, eta handixeagoa zen gizonen artean (% 54,2) emakumeen artean baino (% 41,7). 2022an, antzeko galdera bat egin da, baina onlineko jokoak eta aurrez aurrekoak bereizita, maiztasuna edo gastua zehaztu gabe. Ondorioz, % 90,7k eta % 84,1ek uste dute biztanleek asko edo dezente jokatzen dutela aurrez aurreko jokoetan eta onlineko jokoetan, hurrenez hurren; ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

8. taula. EAEko joko maila (maiztasuna, gastua) handia eta oso handia dela uste duten EAEko biztanleak

| | |
|---|---|
| Emakumeak | 41,7 |
| Gizonak | 54,2 |
| **Guztira** | **47,3** |

*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

Gaur egun duela urte batzuk baino gehiago jokatzen delako ideia oso zabalduta dago EAEko gizartean —bai 2019an, bai 2022an—, 5 pertsonatik ia 3k hala uste baitute. Gainera, 9. taulan ikus daitekeenez, ideia hori finkatuago dago gizonen artean emakumeen artean baino. Oso litekeena da hori izatea gizonezko jokalarien ehunekoa emakumeena baino handiagoa delako, eta gizonezkoek beraiek hori hautematen dutelako edo horren jakitun direlako.

9. taula. EAEn, oro har, pertsonek duela urte batzuk baino gehiago jokatzen dutela deritzoten EAEko biztanleak

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 67,3 | 73,2 |
| Gizonak | 72,2 | 75,7 |
| **Guztira** | **69,5** | **74,4** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

Jokoarekin lotutako arazoei dagokienez, 2019an biztanleen % 71,8k etorkizunean nabarmen, arin edo neurriz ugarituko direla uste dute, eta % 12,4k bere horretan jarraituko dutela uste dute, 4. grafikoan ikus daitekeen bezala. Ugarituko direla uste duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handixeagoa da (% 75,2 eta % 69, hurrenez hurren).

4. grafikoa. Etorkizuneko jokoarekin lotutako arazoei buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2019 (%)




*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

Datu berak, 3 urte geroago, antzekoak dira oraindik. % 71,8k nolabait ugarituko direla uste dute, eta % 12,1ek bere horretan jarraituko dutela (ikus 5. grafikoa). Kasu horretan, emakumeak agertzen dira ezkorxeago, jokoaren ondoriozko arazoak ugarituko direla uste baitute % 72,1ek (gizonen % 71,4).

Jokalarien % 16,1ek bestelako substantziak edaten, erretzen edo kontsumitzen dituzte jokatzen ari diren bitartean. Datu hori handixeagoa da gizonen artean (% 18) emakumeen artean baino (% 14,4).

5. grafikoa. Etorkizuneko jokoarekin lotutako arazoei buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2022 (%)




*Iturria:* Jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta balorazioa Euskadin 2022

10. taula. Jokatzeko orduan jokatzeko ohitura alkoholarekin, tabakoarekin edo mendekotasuna eragiten duen beste substantziaren batekin lotzen duten EAEko biztanleak, sexuaren arabera, 2019 (%)

| | |
|---|---|
| Emakumeak | 14,4 |
| Gizonak | 18,0 |
| **Guztira** | **16,1** |

*Iturria:* Euskal biztanleriaren jokoaren inguruko gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak, 2019

2019an, jokoa diru sarrerak sortzeko ona zela uste zuten pertsonak % 51,1 ziren, eta 2022an, berriz, % 48,5. Bi urteetan, ideia horrekin ados zeuden gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa izan da. Ideia horrekin ados dauden emakumeen ehunekoak gora egin du aldi horretan, halere, eta gizonenak, aldiz, behera.

11. taula. Jokoa diru sarrerak sortzeko ona dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 46,5 | 47,4 |
| Gizonak | 56,6 | 49,8 |
| **Guztira** | **51,1** | **48,5** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

## Jokoaren maiztasuna, ohiturak eta balorazioa

Jokoa entretenimendu eta aisia mota bat dela uste duten pertsonen ehunekoa bikoiztu egin zen ia: 2019ko % 29,9tik 2022ko % 56,8ra. Bi kasuetan, gizonak adosago zeuden ideia horrekin emakumeak baino (ikus 12. taula).

12. taula. Jokoa entretenimendu eta aisia mota bat dela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 28,9 | 55,7 |
| Gizonak | 31,1 | 58 |
| **Guztira** | **29,9** | **56,8** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena

Azkenik, jokatzen duten pertsona gehienek arduraz jokatzen dutela uste zuten pertsonen ehunekoa % 20,3 zen 2019an, eta % 55,6 2022an. 3 urtean baieztapen hori ia heren bat hedatu da biztanleen artean. Bi aldi horietan, gizonak zein emakumeak batez bestekotik oso gertu daude, eta bi taldeetan izan da igoera.

13. taula. Jokatzen duten pertsona gehienek erantzukizunez jokatzen dutela eta mugak ezagutzen dituztela uste dutenen ehunekoa, sexuaren arabera, 2019 eta 2022 (%)

| | 2019 | 2022 |
|---|---|---|
| Emakumeak | 20,7 | 54 |
| Gizonak | 19,8 | 57 |
| **Guztira** | **20,3** | **55,6** |

*Iturria:* 2019 eta 2022ko txostena



# 4. Autodebekatuak

# Autodebekatuak

Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoaren Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 DEKRETUAren 18. artikuluan dago araututa EAEko joko galarazpenen erregistroa (otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

Erregistroan izena ematen duten pertsonek jokoan parte har ez dezaten ezartzen da erregistroa. Ondorioz, pertsona horiek ezin dira sartu sarrera kontrolatzeko sistemak aplikatu behar dituzten joko lokaletan, ez eta autonomia erkidegoaren eskumeneko joko webguneetan ere.

Estatuan, Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiak —Kontsumo Ministerioaren mende— galarazpenen erregistro propioa kudeatzen du bere eskumeneko esparruko jokorako, hau da, estatu esparruko online jokorako.

Pertsona horiek EAEko erregistroan sartzeko, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza egunero sartzen da Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiaren webgunean, eta estatuko autodebekatuak gehitzen ditu EAEn izena emandakoetara (horregatik, gerta daiteke datuak bikoiztuta egotea, pertsona asko bi erregistroetan izena emanda baitaude). EAEko joko lokaletako sarbidea kontrolatzeko sistema guztiak fitxategi horretara konektatuta daude, eta sartzea automatikoki debekatzen diete izena emandako pertsonei.

EAEko eta estatuko erregistroez gain, erregistro bat dago autonomia erkidego bakoitzean; hau da, gaur egun 20 erregistro daude aldi berean. Hala ere, izen emateak elkarri aitortzeko hitzarmen bat sinatzeko izapideak egiten ari dira, autonomia erkidego batean egindako izen ematea aski izan dadin autodebekuak estatu osoan ondorioak izan ditzan.

Hurrengo azpiataletan, 2022ko urtarriletik abendura bitartean bi erregistroetan dauden datuak azalduko ditugu, aztertutako aldian izandako bilakaera kontuan hartuta eta gizonen eta emakumeen arteko bereizketa eginda. Gainera, datu horiek lurralde historiko bakoitzaren arabera ere aztertuko dira.

## 4.1. Erregistro autonomikoa gehi estatukoa

Erregistro autonomikoa eta estatukoa kontuan hartuta (bi erregistroetan dauden pertsonak zenbatzen ditu, bikoiztu gabe), 2022ko urtarriletik abendura bitartean EAEn hala onlineko jokoetatik edo joko publikoetatik nola eskumen autonomikoko pribatuetatik beren burua baztertu duten pertsonen kopuruak % 36,32 egin du gora, 1.330etik 1.813ra.

Hazkunde hori izena eman duten gizonen gorakadaren ondorioz gertatu da; izan ere, horien igoera ia % 48koa izan da, eta emakumeena, berriz, % 6koa.

## Autodebekatuak

Ukitutako biztanleen ehunekoan ere ikusten da hori, gizonezko jokalariak gizon guztien % 0,13 baitira, eta emakumezko jokalariak, berriz, emakume guztien % 0,03. Ondorioz, EAEko biztanleen % 0,08 autodebekatuetan erregistratuta dago.

14. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, 2022

| | | Erregistro autonomikoa + estatukoa | Generoa (%) | Generoa (%) |
|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | Gizonak | 963 | 72,41 | 0,09 |
| | Emakumeak | 367 | 27,59 | 0,03 |
| | Guztira | 1330 | 100 | 0,06 |
| Otsaila | Gizonak | 968 | 72,08 | 0,09 |
| | Emakumeak | 375 | 27,92 | 0,03 |
| | Guztira | 1343 | 100 | 0,06 |
| Martxoa | Gizonak | 981 | 72,13 | 0,09 |
| | Emakumeak | 379 | 27,87 | 0,03 |
| | Guztira | 1360 | 100 | 0,06 |
| Apirila | Gizonak | 1260 | 76,09 | 0,12 |
| | Emakumeak | 396 | 23,91 | 0,04 |
| | Guztira | 1656 | 100 | 0,08 |
| Maiatza | Gizonak | 1255 | 76,29 | 0,12 |
| | Emakumeak | 390 | 23,71 | 0,03 |
| | Guztira | 1645 | 100 | 0,08 |
| Ekaina | Gizonak | 1247 | 76,46 | 0,12 |
| | Emakumeak | 384 | 23,54 | 0,03 |
| | Guztira | 1631 | 100 | 0,07 |
| Uztaila | Gizonak | 1257 | 76,83 | 0,12 |
| | Emakumeak | 379 | 23,17 | 0,03 |
| | Guztira | 1636 | 100 | 0,07 |
| Abuztua | Gizonak | 1278 | 76,80 | 0,12 |
| | Emakumeak | 386 | 23,20 | 0,03 |
| | Guztira | 1664 | 100 | 0,06 |

| | | Erregistro autonomikoa + estatukoa | Generoa (%) | Generoa (%) |
|---|---|---|---|---|
| Iraila | Gizonak | 1264 | 77,07 | 0,12 |
| | Emakumeak | 376 | 22,93 | 0,03 |
| | Guztira | 1640 | 100 | 0,07 |
| Urria | Gizonak | 1319 | 77,13 | 0,12 |
| | Emakumeak | 391 | 22,87 | 0,03 |
| | Guztira | 1710 | 100 | 0,08 |
| Azaroa | Gizonak | 1347 | 77,64 | 0,13 |
| | Emakumeak | 388 | 22,36 | 0,03 |
| | Guztira | 1735 | 100 | 0,08 |
| Abendua | Gizonak | 1424 | 78,54 | 0,13 |
| | Emakumeak | 389 | 21,46 | 0,03 |
| | Guztira | 1813* | 100 | 0,08 |
| 2022ko bilak. | Gizonak | 47,87 | | |
| | Emakumeak | 5,99 | | |
| | Guztira | 36,32 | | |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

## 4.2. Erregistro autonomikoa eta estatukoa

15. taulan, autonomia- eta estatu-mailako autodebekuen erregistroen datuak daude, bereizita. Ildo horretan, erregistro guztietan gorakada bat izan dela ikus daiteke, eta, berriz ere, nabarmenagoa da gizonetan emakumeen artean baino.

Estatuaren eskumeneko jokoetan beren burua baztertu duten pertsonen kopuruak hazkunde txikiagoa izan du autonomia erkidegokoan baino (% 10,6 eta % 33,6, hurrenez hurren).

## Autodebekatuak

15. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoan eta estatuko erregistroan, 2022

| | | EAEko erregistroa | Generoa (%) | Estatuko erregistroa | Generoa (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | Gizonak | 411 | 72,74 | 935 | 79,51 |
| | Emakumeak | 154 | 27,26 | 241 | 20,49 |
| | Guztira | 565 | 100 | 1.176 | 100 |
| Otsaila | Gizonak | 413 | 72,08 | 940 | 79,46 |
| | Emakumeak | 160 | 27,92 | 243 | 20,54 |
| | Guztira | 573 | 100 | 1.183 | 100 |
| Martxoa | Gizonak | 416 | 71,72 | 950 | 79,63 |
| | Emakumeak | 164 | 28,28 | 243 | 20,37 |
| | Guztira | 580 | 100 | 1.193 | 100 |
| Apirila | Gizonak | 444 | 71,38 | 1.005 | 80,14 |
| | Emakumeak | 178 | 28,62 | 249 | 19,86 |
| | Guztira | 622 | 100 | 1.254 | 100 |
| Maiatza | Gizonak | 443 | 71,80 | 1.001 | 80,21 |
| | Emakumeak | 174 | 28,20 | 247 | 19,79 |
| | Guztira | 617 | 100 | 1.248 | 100 |
| Ekaina | Gizonak | 440 | 72,25 | 996 | 80,32 |
| | Emakumeak | 169 | 27,75 | 244 | 19,68 |
| | Guztira | 609 | 100 | 1.240 | 100 |
| Uztaila | Gizonak | 443 | 72,98 | 1.006 | 80,42 |
| | Emakumeak | 164 | 27,02 | 245 | 19,58 |
| | Guztira | 607 | 100 | 1.251 | 100 |
| Abuztua | Gizonak | 457 | 72,89 | 1.017 | 80,52 |
| | Emakumeak | 170 | 27,11 | 246 | 19,48 |
| | Guztira | 627 | 100 | 1.263 | 100 |
| Iraila | Gizonak | 460 | 73,13 | 1.000 | 80,97 |
| | Emakumeak | 169 | 26,87 | 235 | 19,03 |
| | Guztira | 629 | 100 | 1.235 | 100 |

| | | EAEko erregistroa | Generoa (%) | Estatuko erregistroa | Generoa (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| Urria | Gizonak | 487 | 73,12 | 1.034 | 81,03 |
| | Emakumeak | 179 | 26,88 | 242 | 18,97 |
| | Guztira | 666 | 100 | 1.276 | 100 |
| Azaroa | Gizonak | 516 | 74,46 | 1.032 | 81,00 |
| | Emakumeak | 177 | 25,54 | 242 | 19,00 |
| | Guztira | 693 | 100 | 1.274 | 100 |
| Abendua | Gizonak | 577 | 76,42 | 1.056 | 81,2 |
| | Emakumeak | 178 | 23,58 | 245 | 18,8 |
| | Guztira | 755 | 100 | 1.301 | 100 |
| 2022ko bilak. | Gizonak | 40,39 | | 12,94 | |
| | Emakumeak | 15,58 | | 1,66 | |
| | Guztira | 33,63 | | 10,63 | |

* «Estatuko erregistroa» + «erregistro autonomikoa» eta «erregistro autonomikoa+estatukoa» baturen arteko aldea bi erregistroetan izena emandako pertsonei dagokie.

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

## 4.3. Autodebekatuen erregistroa, Araba

Arabaren kasuan, autonomia erkidegoko eta estatuko autodebekatuetan izena emandako pertsonen guztizko bilakaera % 20,3koa izan da (16. taula). Datu hori % 24,2koa izan da gizonei dagokienez, eta % 5,6koa, berriz, emakumeen kasuan.

16. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Araba, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 53 | 53 | 54 | 58 | 57 | 57 | 57 | 58 | 56 | 58 | 55 | 56 | 5,66 |
| Gizonak | 202 | 205 | 209 | 224 | 223 | 221 | 226 | 230 | 227 | 238 | 240 | 251 | 24,26 |
| **Guztira** | **255** | **258** | **263** | **282** | **280** | **278** | **283** | **288** | **283** | **296** | **290** | **307** | **20,39** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Erregistro autonomikoan, % 36,3ko bilakaera izan da, guztizkoan eta estatuko erregistroan baino handixeagoa, jarraian ikusiko dugun bezala. Era berean, igoera hori handiagoa da, berriz ere, gizonen artean (% 43,4) emakumeen artean baino (% 20), 17. taulan ikus daitekeen bezala.

17. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoan, Araba, 2022ko azaroa

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 10 | 9 | 10 | 14 | 14 | 14 | 14 | 15 | 14 | 15 | 13 | 12 | 20 |
| Gizonak | 23 | 23 | 23 | 24 | 24 | 24 | 23 | 24 | 24 | 29 | 31 | 33 | 43,48 |
| **Guztira** | **33** | **32** | **33** | **38** | **38** | **38** | **37** | **39** | **38** | **44** | **44** | **45** | **36,36** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Erregistro autonomikoak online jokoak eta SELAEren edo ONCEren mendekoak arautzen ditu nagusiki, eta ia % 18ko hazkundea izan du 2022an (18. taula). Emakumeei dagokienez % 4,4koa izan da, baina % 21,1era igo da gizonetan.

18. taula. Autodebekatuak estatuko erregistroan, Araba, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 45 | 46 | 46 | 46 | 45 | 45 | 46 | 46 | 45 | 46 | 45 | 47 | 4,44 |
| Gizonak | 189 | 192 | 197 | 211 | 210 | 208 | 214 | 218 | 214 | 221 | 220 | 229 | 21,16 |
| **Guztira** | **234** | **238** | **243** | **257** | **255** | **253** | **260** | **264** | **259** | **267** | **265** | **276** | **17,95** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

## 4.4. Autodebekatuen erregistroa, Bizkaia

Lurralde historikoetan Bizkaiak du pertsona gehien autodebekatuetan izena emanda, baina lurralde historiko horretan dago biztanle gehien eta joko eskaintza gehien. Termino erlatiboetan, Araba eta Bizkaia antzeko egoeran daude, biztanleen % 0,1 inguru baitago bi erregistroetan izena emanda.

2022ko bilakaera Erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, 2022an bilakaera % 56koa izan da (19. taula). Igoera hori batez ere gertatu da gizonak % 79,6 gehiago izan direlako, eta emakumeak, berriz, % 6,1 baino ez dira gehitu. Gainerako lurralde historikoei dagokienez, Bizkaian izan da hazkunderik handiena baterako erregistroan.

19. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Bizkaia, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 213 | 217 | 219 | 230 | 227 | 225 | 220 | 226 | 223 | 227 | 226 | 226 | 6,10 |
| Gizonak | 451 | 541 | 453 | 707 | 706 | 705 | 707 | 724 | 713 | 745 | 765 | 810 | 79,60 |
| **Guztira** | **664** | **668** | **672** | **937** | **933** | **930** | **927** | **950** | **936** | **972** | **991** | **1036** | **56,02** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Erregistro autonomikoan, izena emandako pertsonen kopurua % 38,7 igo da, eta antzeko egoera egon da Arabakoan. Halaber, emakumeen hazkundea % 22,5 izan da, eta gizonena, % 43,6 (20. taula).

20. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoan, Bizkaia, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 93 | 98 | 100 | 110 | 108 | 106 | 102 | 108 | 109 | 114 | 114 | 114 | 22,58 |
| Gizonak | 307 | 309 | 310 | 331 | 331 | 329 | 333 | 345 | 346 | 367 | 393 | 441 | 43,65 |
| **Guztira** | **400** | **407** | **410** | **441** | **439** | **435** | **435** | **453** | **455** | **481** | **507** | **555** | **38,75** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Aldiz, estatuko autodebekatuetan erregistratutako pertsonen kopurua oso txikia; % 6,8 termino erlatiboetan. Bilakaera horren ezaugarri nagusia da erregistratutako emakumeak gutxiago izan direla, % 2 inguru zehazki. Gizonei dagokienez, % 9,4 gehiago izan dira.

Datu hori EAEko 3 erregistroetatik baxuena izateaz gain, EAEko batezbestekoaren azpitik ere badago; igoera, lehen esan bezala, % 10,63 izan da.

21. taula. Autodebekatuak estatuko erregistroan, Bizkaia, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 144 | 143 | 143 | 147 | 146 | 144 | 143 | 143 | 137 | 138 | 138 | 141 | –2,08 |
| Gizonak | 500 | 500 | 500 | 536 | 535 | 536 | 537 | 545 | 534 | 549 | 544 | 547 | 9,40 |
| **Guztira** | **644** | **643** | **643** | **683** | **681** | **680** | **680** | **688** | **671** | **687** | **682** | **688** | **6,83** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

## 4.5. Autodebekatuen erregistroa, Gipuzkoa

Gipuzkoa nabarmentzen da lurralde historiko honetan igo delako gutxien erregistratutako pertsonen kopurua, baina gorakada izan da populazio talde guztietan.

Bi erregistroen baturak (22. taula) % 14,3ko bilakaera izan du; gizonena % 17,1ekoa izan da, eta % 6 ingurukoa, emakumeena.

## Autodebekatuak

22. taula. Autodebekatuak erregistro autonomikoa eta estatukoa batuta, Gipuzkoa, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 101 | 105 | 106 | 108 | 106 | 102 | 102 | 102 | 97 | 106 | 342 | 107 | 5,94 |
| Gizonak | 310 | 312 | 319 | 329 | 326 | 321 | 324 | 324 | 324 | 336 | 107 | 363 | 17,10 |
| **Guztira** | **411** | **417** | **425** | **437** | **432** | **423** | **426** | **426** | **421** | **442** | **449** | **470** | **14,36** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Erregistro autonomikoko pertsona kopuruan izan da hazkunderik handiena, % 17,4 (23. taula). Berriz ere, gizonen hazkundea emakumeena baino handiagoa izan da, baina oraingoan oso nabarmen: % 27,1 eta % 1,9, hurrenez hurren. Hala ere, bi kasuetan, hazkundea EAEko batezbestekoaren oso azpitik egon da.

23. taula. Autodebekatuak erregistro automatikoan, Gipuzkoa, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 51 | 53 | 54 | 54 | 52 | 49 | 48 | 47 | 46 | 50 | 50 | 52 | 1,96 |
| Gizonak | 81 | 81 | 83 | 89 | 88 | 87 | 87 | 88 | 90 | 91 | 92 | 103 | 27,16 |
| **Guztira** | **132** | **134** | **137** | **143** | **140** | **136** | **135** | **135** | **136** | **141** | **142** | **155** | **17,42** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

Azkenik, estatuko erregistroan izena emandako gipuzkoarren kopurua % 13 igo da: gizonak, % 13,8, eta emakumeak, % 9,6.

24. taula. Autodebekatuak estatuko erregistroan, Gipuzkoa, 2022

| | Urt. | Ots | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzt. | Abu. | Ira. | Urr. | Aza. | Abe. | Bilak. 22 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 52 | 54 | 54 | 56 | 56 | 55 | 56 | 57 | 53 | 58 | 59 | 57 | 9,62 |
| Gizonak | 246 | 248 | 253 | 258 | 256 | 252 | 255 | 254 | 252 | 264 | 268 | 280 | 13,82 |
| **Guztira** | **298** | **302** | **307** | **314** | **312** | **307** | **311** | **311** | **305** | **322** | **327** | **337** | **13,09** |

*Iturria:* Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza



# 5. Jokoarekin lotutako langileak

## 5.1. Elkarteetako langileak

Aurreko puntuari dagokionez, joko arazoren bat duten eta elkarteetara laguntza eta babes bila joaten diren pertsonak daude. Datu horiek lortzeko, hiru lurralde historikoetan dauden 8 elkarterekin jarri gara harremanetan (Bizkaia,4; Gipuzkoa, 3, eta Araba, 1). Azkenik, 6k erantzun dute; Bizkaiko 2k, Gipuzkoako 3k eta Arabako 1ek.

25. taulan ikus daitekeenez, 2022ko lehen seihilekoan (datuak martxotik ekainera bitartean lortu dira), guztira 471 pertsonak jo dute elkarte horietara jokoarekin lotutako jokabide problematikoengatik. Kasu honetan, datuak erabiltzaileen sexuaren arabera baino ez ditugu bereizi, eta ez lurralde historikoen arabera, pertsonen anonimotasuna babestearren.

Erabiltzaile guztien artean, gizonak dira nagusi, guztien ia % 89 zehazki, eta gailentzen dira, orobat, 31 eta 45 urte bitartekoak. Horrenbestez, elkarteetara joaten diren gehienak adin tarte horretako gizonak dira (% 34,46). Aldiz, emakume gazteenak (18 eta 30 urte bitartekoak) dira elkarteetara gutxien joaten direnak (% 1,49); izan ere, gutxiago jokatzen dute eta, ondorioz, ez dute jokoarekin lotutako arazorik (JEB, 2022)[1].

25. taula. Jokoarekin lotutako arazoengatik elkarteen erabiltzaile izandakoak Euskadin, 2022

| | 18-30 | % | 31-45 | % | 46 baino gehiago | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumea | 7 | 1,49 | 18 | 3,82 | 27 | 5,73 | 52 | 11,04 |
| Gizona | 139 | 29,51 | 167 | 35,46 | 113 | 23,99 | 419 | 88,96 |
| **Guztira** | **146** | **31,00** | **185** | **39,28** | **140** | **29,72** | **471** | **100** |

*Iturria:* Geuk egina, elkarteetatik lortutako datuetan oinarrituta

Nabarmendu behar da elkarteen ehuneko handi batek adierazi zuela COVID-19aren neurriek eragindako ondorioak nabaritzen dituztela oraindik; hori dela eta, joaten diren pertsonen kopurua oso txikia da 2020ko martxoa baino lehenagoko egoerarekin alderatuta.

Erabiltzaileei buruzko datuez gain, langile lan kontratudunen eta boluntarioen egitura ere ezagutu nahi izan dugu. Elkarteetan lan egiten duten pertsonei dagokienez (26. taula), 44 langile daude guztira, eta kopuru bertsuan daude emakumeak eta gizonak: 24 eta 20, hurrenez hurren. Kasu horretan, langile gehienak 46 urtetik gorakoak dira (% 61,36).

[1] Jokoaren Euskal Behatokia, 2022 Gazteak eta jokoa Euskal Autonomia Erkidegoan. Diagnostikoa 2021 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/copia_jobe_public_observ/eu_def/Gazteria-eta-Jokoak-Txostena_EUSK.pdf

26. taula. Joko arazoak dituzten pazienteei laguntzeko elkarteetako langile lan kontratudunak Euskadin, 2022

| | 18-30 | % | 31-45 | % | 46 baino gehiago | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumea | 3 | 6,82 | 7 | 15,91 | 14 | 31,82 | 24 | 54,55 |
| Gizona | 1 | 2,27 | 6 | 13,64 | 13 | 29,55 | 20 | 45,45 |
| **Guztira** | **4** | **9,09** | **13** | **29,55** | **27** | **61,36** | **44** | **100** |

*Iturria:* Geuk egina, elkarteetatik lortutako datuetan oinarrituta

Azkenik, elkarteetan boluntarioak ere badaude, eta pazienteei laguntzen aritzen dira. Erantzun zuten elkarteek, oro har, 72 boluntarioren laguntza dute; horietatik % 73,6 gizonak dira, eta % 26,4, emakumeak. Langile lan kontratudunetan bezalaxe, 46 urtetik gorakoak dira gehienak (% 50) (ikus 27. taula).

27. taula. Joko arazoak dituzten pazienteei laguntzeko elkarteetako langile boluntarioak Euskadin, 2022

| | 18-30 | % | 31-45 | % | 46 baino gehiago | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumea | – | – | 5 | 6,94 | 14 | 19,44 | 19 | 26,39 |
| Gizona | 8 | 11,11 | 23 | 31,94 | 22 | 30,56 | 53 | 73,61 |
| **Guztira** | **8** | **11,11** | **28** | **38,89** | **36** | **50** | **72** | **100** |

*Iturria:* Geuk egina, elkarteetatik lortutako datuetan oinarrituta

Laburbilduz, elkarteetan ikus daiteke, oro har, leku maskulinizatuago bat dela, gizonezkoak gehiago baitira, hala erabiltzaileetan (% 88,9) nola boluntarioetan (% 73,6). Hala ere, enpleguari dagokionez, emakume gehiago daude (% 54,5). Honako hau izan daiteke horren arrazoia: batetik, boluntarioak jokalari ohiak dira, eta, bestetik, langileen profila psikologiatik, gizarte lanetik, administraziotik dator, eta lizentziatura edo gradu horiek guztiak feminizatuta daude.

Maskulinizatuta egoteaz gain, 46 urtetik gorako pertsonen presentzia handiagoa nabarmentzen da, hala langile lan kontratudunetan (% 61,3), nola boluntarioetan (% 50). Pazienteetan, ia % 30 badaude ere, tarteko adinekoak nabarmentzen dira (% 39,3).

## 5.2. Jokoaren sektoreko enpresetako langileak

Atal honetan helburutzat izan dugu jokoaren sektoreko enpresen egitura aztertzea, horietan aritzen direnen karguak eta sexua kontuan hartuta. Oro har, emakumeak

dira sektoreko zuzendaritza kargudunen % 21,9; lehendakaritzan % 9,8 dira, eta zuzendaritza batzordean, % 12,1. Halaber, gainerako langile lan kontratudunetan % 34,6 emakumeak dira (% 18k lotura zuzena dute jokoarekin; % 7,1ek ostalaritzarekin, eta % 9,5ek administrazio eta kudeaketarekin). Baina egitura hori ez da berdina enpresa guztietan, eta, horregatik, honako mota hauen araberako azterketa egin dugu: apustu enpresak, bingoak, kasinoak eta sektoreko beste enpresa batzuk.

### *5.2.1. Apustu enpresak*

Lehenik eta behin, apustu enpresetako zuzendaritza karguak oso maskulinizatuta daude; ez dago emakumerik lehendakaritza karguetan, eta % 4,3 baino ez zuzendaritza batzordean (28. taula).

28. taula. Apustu enpresetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Lehendakaritza | Emakumeak | — |
| | Gizonak | 100 |
| Zuzendaritza batzordea | Emakumeak | 4,3 |
| | Gizonak | 95,7 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

Langile lan kontratudunen multzoan, oraindik ere maskulinizatuta badago ere, emakumeen presentzia % 24ra igotzen da jokoarekin lotutako postuetan; % 16,7 dira ostalaritzarekin zerikusia duten postuetan, eta % 37,4, berriz, administrazio eta kudeaketan (emakume gehien dagoen sektorea).

29. taula. Apustu enpresetako langile lan kontratudunak sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Jokoarekin lotuta | Emakumeak | 24 |
| | Gizonak | 76 |
| Ostalaritzarekin lotuta | Emakumeak | 16,7 |
| | Gizonak | 83,3 |
| Administrazio eta kudeaketarekin lotutakoa (zerbitzuak) | Emakumeak | 37,4 |
| | Gizonak | 62,6 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

### *5.2.2. Bingoak*

Bigarrenik, bingoak daude. Gizonak emakumeak baino gehiago badira ere, enpresa sektore honetan dago emakume gehien termino erlatiboetan. Zuzendaritza kargudunen artean, lehendakaritzan % 36,4 dira emakumeak, eta zuzendaritza batzordean, berriz, % 43,5 (30. taula).

30. taula. Bingoetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Lehendakaritza | Emakumeak | 36,4 |
| | Gizonak | 63,6 |
| Zuzendaritza batzordea | Emakumeak | 43,5 |
| | Gizonak | 56,5 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

Gainerako langile lan kontratudunei dagokienez, azpisektore batzuetan gehiago dira emakumeak gizonak baino, hala nola administrazio eta kudeaketarenean (% 60) edo jokoarekin lotutakoan (% 45,8). Ostalaritzarekin lotutako karguak apur bat maskulinizatuta daude (% 61,1).

31. taula. Bingoetako langile lan kontratudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Jokoarekin lotuta | Emakumeak | 54,8 |
| | Gizonak | 45,2 |
| Ostalaritzarekin lotuta | Emakumeak | 38,9 |
| | Gizonak | 61,1 |
| Administrazio eta kudeaketarekin lotutakoa (zerbitzuak) | Emakumeak | 60 |
| | Gizonak | 40 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

### *5.2.3. Kasinoak*

Kasinoetako zuzendaritza kargudun guzti-guztiak gizonezkoak dira, hala lehendakaritzan, nola zuzendaritza batzordean (32. taula); hori horrela, plantilla hori da maskulinizatuen dagoena.

32. taula. Kasinoetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadi, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Lehendakaritza | Emakumeak | — |
| | Gizonak | 100,0 |
| Zuzendaritza batzordea | Emakumeak | — |
| | Gizonak | 100,0 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

Kasinoetan, jokoarekin eta administrazio eta kudeaketarekin lotutako langile lan kontratudun gehienak gizonak dira (% 51,3 eta % 71,9, hurrenez hurren), baina ostalaritzarekin zerikusia duten kargudunak nabarmentzen dira, emakumeak baitira % 68,4 (33. taula).

33. taula. Kasinoetako langile lan kontratudunak sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Jokoarekin lotuta | Emakumeak | 48,8 |
| | Gizonak | 51,3 |
| Ostalaritzarekin lotuta | Emakumeak | 68,4 |
| | Gizonak | 31,6 |
| Administrazio eta kudeaketarekin lotutakoa (zerbitzuak) | Emakumeak | 28,1 |
| | Gizonak | 71,9 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

### *5.2.4. Sektoreko beste enpresa batzuk*

Azkenik, jokoaren sektoreari lotutako gainerako enpresak (B motako makinak, jolaserako eta ausazko makinak ustiatzea; joko aretoak, etab.) multzo berean sartu ditugu; hori horrela, zuzendaritza kargudunak gehienbat gizonezkoak dira, % 78,5 lehendakaritzan, eta % 77,3, berriz, zuzendaritza batzordean.

## Jokoarekin lotutako langileak

34. taula. Sektoreko beste enpresa batzuetako zuzendaritza kargudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Lehendakaritza | Emakumeak | 21,5 |
| | Gizonak | 78,5 |
| Zuzendaritza batzordea | Emakumeak | 22,7 |
| | Gizonak | 77,3 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta

Halaber, aldeak daude azpisektoreetako langile lan kontratudunei dagokienez. Jokoarekin lotutakoa oso maskulinizatuta dago (% 80,1), baina ostalaritzarekin eta administrazio eta kudeaketarekin lotutakoa, aldiz, pixka bat feminizatuta dago: % 50,8 eta % 66,4, hurrenez hurren.

35. taula. Sektoreko beste enpresa batzuetako langile lan kontratudunak, sexuaren arabera, Euskadin, 2022

| Kargua | Sexua/generoa | % |
|---|---|---|
| Jokoarekin lotuta | Emakumeak | 19,9 |
| | Gizonak | 80,1 |
| Ostalaritzarekin lotuta | Emakumeak | 50,8 |
| | Gizonak | 49,2 |
| Administrazio eta kudeaketarekin lotutakoa (zerbitzuak) | Emakumeak | 66,4 |
| | Gizonak | 33,6 |

*Iturria:* Geuk egina, sektoreko enpresetatik lortutako datuetan oinarrituta




# 6. «B» Motako makinak

# «B» Motako makinak

EAEn dauden B motako makinen modeloetako irudiei buruz —genero ikuspegiarekin— egindako azterketa azalduko dugu orain. JEBko langileek emandako irudien bidez, 339 modeloren azterketa bisuala egin dugu. Modelo bakoitzaren hainbat makina daude ezarrita hiru lurraldeetan, 9.946 guztira: Araban, % 16; Gipuzkoan, % 28, eta Bizkaian, % 56.

Hain zuzen ere, eta txosten honen helburuaren ildotik, asmoa zera da: jakitea ea ezarrita dauden makina horietatik zenbatek duten emakumeen irudi sexualizaturik (irudi bizidunak dira orokorrean). Hau da, ea irudi horietan ageri diren jarrerak, arropak eta abarrak, modu batera edo bestera, edertasun eredu/estereotipo eta jokabide jakin batzuk betetzen dituzten, jokalarien arreta bereganatu nahian.

Gainera, kasu horien adibideak emateko, hainbat makina aukeratu ditugu: batetik, estereotipo sexualizaturik gabeko B motako makinen modeloak (jardunbide egokiak), eta horrelako edukiak dituztenenak (jardunbide txarrak).

## 6.1. «B» motako makinak: datuak

Homologatuta dauden B motako makinen 339 modeloetatik % 93,3 aztertu ditugu edukiaren arabera. Gainerakoetan (% 7,7), ezin izan da azterketa hori egin, ez baita irudi garbirik lortu.

Ikusi ahal izan direnetan, % 57,5ek eduki sexualizatua dute; % 30,7n ez zen emakumerik (animatua) ageri, eta % 4,1en emakumerik bazegoen, baina ez era sexual batez.

36. taula. B motako makinak, eduki bisualaren arabera

| | n | % |
|---|---|---|
| Ez dago emakumerik | 104 | 30,7 |
| Emakume sexualizatuak daude | 195 | 57,5 |
| Emakumeak daude, baina ez daude sexualizatuta | 14 | 4,1 |
| Ezin da ikusi | 26 | 7,7 |
| **Guztira** | **339** | **100** |

*Iturria:* Guk eginda, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eskainitako datuetan oinarrituta

Hala ere, are azterketa zehatzagoa egiteko, makina sinpleak (joko aukera bakarra) eta makina aniztunak (jokalari edo pantaila anitzekoak) bereizi nahi izan ditugu.

B motako makina sinpleen modeloak 193 dira guztira (modeloen ia % 57). Egindako azterketaren arabera, kasuen % 52,8n emakume sexualizatuak daude; % 43n ez

dago emakumerik, eta % 3,1en emakumeak daude, baina eduki sexualizaturik gabe. Gainerako % 1ean makinaren irudia ezin da ikusi.

37. taula. B motako makina sinpleak, eduki bisualaren arabera

| | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Ez dago emakumerik | 83 | 43,0 |
| Emakume sexualizatuak daude | 102 | 52,8 |
| Emakumeak daude, baina ez daude sexualizatuta | 6 | 3,1 |
| Ezin da ikusi | 2 | 1,0 |
| **Guztira** | **193** | **100** |

*Iturria:* Guk eginda, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eskainitako datuetan oinarrituta

B motako makina aniztunen modeloei dagokienez (modeloen % 43), «Emakume sexualizatuak daude» kategorian sartu dugu, baldin eta jokoetako batean bederen era horretako irudiak bazeuden. Ondorioz, egiaztatu dugu horietatik % 63,7n —joko batean gutxienez— emakume sexualizatuko irudirik badagoela. % 14,4n ez da emakumeen irudirik ikusi; % 5,5en emakumeak zeuden, baina sexualizatuta egon gabe, eta makinen % 16,4 ezin izan dira aztertu.

38. taula. B motako makina aniztunak, eduki bisualaren arabera

| | Maiztasuna | % |
|---|---|---|
| Ez dago emakumerik | 21 | 14,4 |
| Emakume sexualizatuak daude | 93 | 63,7 |
| Emakumeak daude, baina ez daude sexualizatuta | 8 | 5,5 |
| Ezin da ikusi | 24 | 16,4 |
| **Guztira** | **146** | **100** |

*Iturria:* Guk eginda, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eskainitako datuetan oinarrituta

Ikusi ahal izan dugunez, modeloen erdiek baino gehiagok (% 57,5) eduki sexualizatua dute pantailetan. Espero zitekeen bezala, kopuru hori handiagoa da (% 63,7) pantaila anitzeko makinen kasuan; hau da, jokalariak zenbait joko aukera dituen horietan.

## 6.2. Jardunbide egokiak

Azken atal honetan B motako makinen zenbait kasu aurkeztuko ditugu, jardunbide egokien adibide gisa, bai eta hobetu beharrekotzat jotzen ditugun beste batzuk ere.

Lau ereduren bitartez (lehenengoetan) eta hiruren bidez (bigarrenetan) eremu horretako egoerari eta proiekzioari buruzko eztabaida bultzatu nahi dugu.

## *1. JUGADA MAESTRA*

*Jugada Maestra* makinari dagokio jardunbide egokien lehen adibidea, emakumeen irudi iraingarririk edo sexualizaturik ez duelako. Eredu honek *tetris* joko klasikoaren edo antzekoaren antza du.

Modelo klasikoko makina bat da; tonu urdineko kolore biziak eta argi keinukariak ditu makina osoan. Elementu neutralak ditu, batez ere irudi geometrikoak, zenbakizkoak edo frutak baitira.




Elementu nagusietako bat bingo gurpila da, erabat ausazkoa den joko baten erreprodukzioa. Gainera, bi arrabol ditu. Lehenengoa, pantailarako egokitzapen bat

da, bar-en sinbolo eta 7ekin. Bigarren arrabolak —klasikoak— frutak eta kanpaiak ditu. Bi arrabolen ondoan sariak ageri dira; hots, lerroko konbinazio guztiak eta zer sari ekonomiko dakarten. Hori horrela, inolako diskriminaziorik sortzen ez duten irudi neutroak proiektatzen dira.

Txanponak eta billeteak sartzeko zirrikituak ongi ikusteko eta iristeko moduko garaieran daude apustu egin behar duten pertsonentzat.

## 2. MULTILINER X JOKALARI

*Multiliner* modeloa jokalari anitzeko makina bat da, altzari bakar batez osatuta; parte hartu nahi duten jokalari guztiek joko berean egiteko aukera dute, haien postua edozein dela ere. Hau da, ez dago mugarik modeloaren eskaintza hautatzeko orduan. Kasu honen berezitasuna da postu guztiak elkarri lotuta egon behar direla ezinbestean jokatu ahal izateko, eta horietakoren bat lotuta ez badago, makina zerbitzutik kanpo gelditzen da.



*Multiliner* modeloaren irudiak eta elementuak bat datoz ausazko jokoen edo kasinoko erruleten iruditeria klasikoarekin. Makinaren izena dago aurrealdean, eta horren ondoan, gainerakoan, kolore ilunak (gorriak eta beltzak), zenbakiak eta erruleta bat ageri dira. Horrela, alde batera utzi da gizaki edo animalien irudi oro, horrelakoekin gerta bailiteke estereotipoak, aurreiritziak edo bestelako irudi baztertzaileak proiektatzea.

Txanponak eta billeteak sartzeko zirrikituak ongi ikusteko eta iristeko moduko garaieran daude apustu egin behar duten pertsonentzat.

## 3. MERKUR MAGIC II VSLT

Hirugarren modeloa, *Merkur Magic* izenekoa, joko anitzeko altzariaren adibide bat da; hau da, jokalariek, makina horren pantailan, aukera batzuk dituzte hautatzeko. Horietako bakoitzak bere irudiak, koloreak eta abarrak ditu, eta pantaila nagusian proiektatzen dira.



Hirugarren modelo honen estetika orokorra soila da, hala koloreengatik nola irudiengatik. Goiko aldean, eguzki irribarretsu baten logoa nabarmentzen da, eta haren ondoan, makinaren izena kolore distiratsu eta biziez idatzita (horiak edo gorriak hondo beltzaren gainean). Panel nagusian beste eremu koloretsu bat dago, eta makinako joko bakoitzaren logoa ageri da bertan. Eremu biziago horretatik haratago, gainerakoan ez dago interpretatzeko moduko irudi edo marrazkirik.

Beste bietan bezala, txanponak eta billeteak sartzeko zirrikituak ongi ikusteko eta iristeko moduko garaieran daude apustu egin behar duten pertsonentzat.

### 4. NOVO LINE CLUB II

Jardunbide egokiak irudikatzeko azken makina modeloa *novoline Club II* izenekoa da. Aurreko altzariaren antzera, pantaila bat dago erdiko aldean, eta haren jokoetako bat hauta daiteke bertan. Joko horietako batzuk poker edo kasino klasikoko jokoak dira, bai eta abenturetako beste batzuk ere.



*Novoline Club II* makinaren goiko eta erdiko pantailek hartzen dute altzariaren eremurik handien, eta ia ez dago tokirik, beraz, bestelako irudi, marrazki edo logorik txertatzeko. Koloreak soilak dira, tonu beltz, gris eta zurietan, eta horregatik ez da deigarria lehen begiratuan. Gainera, makinaren inguruko markoak argiztatu egiten dira, eta erakargarriagoa egiten zaio jokalariari, baina bestelako proiekziorik gabe. Horregatik guztiagatik, jardunbide egokien artean sartu behar da, ez baitu irudi diskriminatzailerik proiektatzen.

Txanponak eta billeteak sartzeko zirrikituak daude, eta billeteak sartzekoa da erakargarriagoa, argiztatuta dagoelako, baina gainerako makinetan bezala, toki praktikoan daude jokalarientzat.

## 6.3. Jardunbide txarrak

### *1. RF BURLESQUE*

Honako hau, *RF Burlesque*, aldaketaren bat behar duen makinaren adibidetzat har daiteke. Giro burleskoko jai areto bat da gai nagusia, eta hortik datorkio izena. Aurreko altzari soilen aldean, makina honek kolore biziak ditu, eta askotariko tamaina edo posizioko irudiz beteta dago; horietako batzuk lehen planoan eta beste batzuk itzalean. Horrenbestez, makina hau askoz ikusgarriagoa da kolore ilunagoko beste batzuk baino.

Are gehiago sakonduta, ondorengo irudian ikus daitekeen bezala, irudietan emakumeak dira nagusi, argi eta garbi; halaber, jarrera iradokitzailea eta arropa gutxi dute beti. Zehatzago esanda, lau emakumek dute protagonismoa makinan, eta beste batzuk ageri dira atzealdean, beltzez bada ere. Horietako hiru alboetan daude, arrabolak, prezioak eta konbinazioak ageri diren altzariko pantaila nagusien inguruan; laugarren bat beheko aldean dago, sariak irteteko zirrikitutik gertu. Aurreko hiru emakume horiek makillatuta eta kortse eta galtzari-eustekoez jantzita daude, eta guztiek dituzte bular mardulak; horrez gain, jarduera akrobatikoak egiten dute, edo dantzatuko balira bezala ari dira. Aurrekoekin batera, gutxienez beste bi emakume gehiago daude, beltzez, dantzan, argi distiratsuen itxurako batzuen artean. Azkenik, beheko aldean, diskoteka bateko eszena adierazgarri bat dago: sexu desberdineko pertsonak ikusten dira dantzan eta gozatzen, gortina handi batzuez inguratuta. Eszena horren mutur batean beste emakume bat ageri da, makillatuta, arrapa gutxiz jantzia eta jarrera iradokitzailean, lokalerako ongietorria emango balu bezala.

Arrabol eta pantailetan ere badaude nolabaiteko konnotazioa duten sinboloak. Zenbakiekin eta beste elementu klasikoagoekin batera (frutak eta diamanteak, esaterako), emakume zapata takoidunak, kortseak edo era limurtzaile batez margotutako emakume ezpainak agertzen dira, orobat. Horrela, altzaria osatzen duten elementu guztien arteko koherentzia dago, eszena sexualizatu bat irudikatuta.





## *2. GIGAMES WOONSTERS HOTEL*

Bigarren modeloan, *Gigames Woonster Hotel*, giro iluna, munstroak eta mamuak dira nagusi. Oraingoan, koloreak, altzarien giroaren ildotik, ilunak dira, ikusgarritasun handirik sortu gabe. Irudietan gehienbat saguzarrak, mamuak edo munstroak ageri dira; gehienak hoteleko balkoietan kokatuta. Erdialdean erruletak eta arrabolak daude. Irudietan ikus daitekeenez, ohiko frutak edo zenbakiak agertzen dira, eta horiekin batera, gaiarekin zerikusia duten beste batzuk, hala nola kalabazak edo hontzak. Sariek eta arrabol gehiagok betetzen dute mostradore nagusiaren beheko aldea.

Hala ere, hotel horretako balkoietan ageri diren pertsonaien artean emakume batekin argi eta garbi identifika daitekeen pertsonaia bat dago. Kasu honetan, emakumeak hegalak ditu, eta saguzar baten itxura. Karakterizazio hori gorabehera, irudia emakume batekin identifikatzen da; aulki baten gainean eserita dago, jarrera iradokitzailean.

## «B» Motako makinak

Balkoiko barroteek irudia nolabait estaltzen badute ere, hanka gurutzatuei eta eskoteari antzematen zaie; irudi sexualizatua da, beraz.

Emakume irudi bera ageri da pantaila nagusian, makinaren jarraibideekin; era horretan, jokalariaren arreta bereganatu nahi da.





### *3. LAS PIRATAS DEL CARIBE*

Proposatutako hirugarren makina adibideak *Piratas del Caribe* du izena, eta piraten istorioetan eta abenturetan girotua dago jakina, baina agertzen diren irudietako bakar bat ere ez da gizon batena. Altzariak tonu urdineko kolore biziak ditu; uretako paisaiak daude, halaber, bai eta landaretza nagusi duten bestelako batzuk ere. Dauden arrabolek hartzen dute eremu gehien, bi lekutan; goiko eta beheko aldean. Ageri diren irudiak B motako makinen konbinazioei irudi klasikoak dira, baina horiekin batera, gaiari dagozkion beste batzuk ere ageri dira, hala nola piraten txanoak edo edari alkoholdunen botilak.

Pertsonaiei dagokienez, ez da gizon piratarik ageri, baina bai hiru emakume. Beste hiru adibideetan bezala, emakumearen irudikapen sexualizatua dago; izan ere, arropa gutxiz jantzita daude, eta haien gorputzetan formak, bularrak bereziki, nabarmenduta ageri dira. Emakumeek toki nabaria dute makinan. Horren erakusle, emakumeetako bat etzanda dago txanponak sartzen diren zirrikituan. Beste bat, lortutako bonuen informazio panelaren ondoan dago.






## «B» Motako makinak

| Zk. | Izena | Emakume/ panpina bizidun sexualizatuak | Kodea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | Homologazio data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | LA PERLA DEL CARIBE DELUXE | BAI | 1 | 105 | 498 | 228 | 831 | 2017/09/07 |
| 2 | GIGAMES LUCKY BROTHERS | EZ | 0 | 83 | 190 | 154 | 427 | 2017/01/17 |
| 3 | GIGAMES PINGUINOS LOCOS | EZ | 0 | 67 | 201 | 90 | 358 | 2019/07/23 |
| 4 | GIGAMES DESAFIO PIRATA | EZ | 0 | 42 | 182 | 91 | 315 | 2019/01/31 |
| 5 | RF BURLESQUE | BAI | 1 | 34 | 206 | 47 | 287 | 2016/06/15 |
| 6 | GIGAMES EL DORADO | EZ | 0 | 55 | 122 | 73 | 250 | 2016/01/14 |
| 7 | EL ORO DEL FARAON | BAI | 1 | 19 | 184 | 38 | 241 | 2020/02/13 |
| 8 | ON THE ROCKS | BAI | 1 | 39 | 136 | 64 | 239 | 2018/05/16 |
| 9 | NEFERTARI | BAI | 1 | 32 | 124 | 27 | 183 | 2018/04/26 |
| 10 | RF NEÓPOLIS | BAI | 1 | 25 | 124 | 27 | 176 | 2014/10/10 |
| 11 | GIGAMES VENEZIA MIX | BAI | 1 | 40 | 80 | 52 | 172 | 2018/09/28 |
| 12 | JUGADA MAESTRA | EZ | 0 | 30 | 131 | 11 | 172 | 2017/09/07 |
| 13 | UNIDESA MANHATTAN | BAI | 4 | 28 | 107 | 37 | 172 | 2019/10/18 |
| 14 | GIGAMES EL CHIRINGUITO SALON | BAI | 1 | 25 | 76 | 65 | 166 | 2017/12/12 |
| 15 | GNOMOS MIX | BAI | 1 | 19 | 113 | 24 | 156 | 2013/09/09 |
| 16 | GIGAMES CHIRINGUITO BEACH | BAI | 1 | 38 | 73 | 38 | 149 | 2017/06/15 |
| 17 | UNIDESA GALAXIA | BAI | 1 | 15 | 88 | 30 | 133 | 2019/02/19 |
| 18 | GIGAMES LA BODEGUILLA | BAI | 1 | 25 | 53 | 41 | 119 | 2012/03/09 |
| 19 | ADMIRAL IV 1T | BAI | 4.1 | 21 | 41 | 54 | 116 | 2016/01/25 |
| 20 | EL TESORO DE JAVA II | EZ | 0 | 20 | 64 | 29 | 113 | 2019/05/07 |
| 21 | LA GRANJA 500 | BAI | 1 | 10 | 55 | 48 | 113 | 2017/05/24 |
| 22 | GIGAMES ANDEN 21 | BAI | 1 | 16 | 61 | 29 | 106 | 2018/03/23 |
| 23 | GIGAMES WOONSTERS | EZ | 0 | 30 | 36 | 40 | 106 | 2010/11/23 |
| 24 | DIAMOND ROULETTE EXCLUSIVA X | EZ | 0 | 15 | 55 | 36 | 106 | 2018/01/12 – 2019/04/11 |
| 25 | MERKUR MAGIC EXCLUSIVA | EZ | 0 | 21 | 42 | 42 | 105 | 2013/04/16 |
| 26 | UNIDESA VIKINGOS 500 | BAI | 1 | 15 | 47 | 42 | 104 | 2017/05/10 |
| 27 | UNIDESA DOBLE WIN | BAI | 4.1 | 14 | 41 | 45 | 100 | 2017/05/17 |
| 28 | LAS PIRATAS DEL CARIBE 500 | BAI | 1 | 11 | 38 | 47 | 96 | 2017/05/18 |
| 29 | NIKAULE | BAI | 1 | 10 | 66 | 20 | 96 | 2018/07/11 |
| 30 | GIGAMES WOONSTERS HOTEL | BAI | 1 | 21 | 58 | 15 | 94 | 2016/12/01 |
| 31 | GIGAMES MULTIPLAYER 3 | BAI | 4.1 | 15 | 48 | 26 | 89 | 2014/11/28 |
| 32 | CHICAGO FIVE | EZ | 0 | 13 | 50 | 21 | 84 | 2017/10/24 |
| 33 | GIGAMES SAMARKANDA | BAI | 1 | 18 | 43 | 23 | 84 | 2021/06/07 |
| 34 | LA MÁQUINA DEL TIEMPO | BAI | 1 | 16 | 33 | 35 | 84 | 2016/05/16 |
| 35 | MERKUR MAGIC EXCLUSIVA M3 | BAI | 4.1 | 3 | 59 | 21 | 83 | 2014/02/04 |

## «B» Motako makinak

| Zk. | Izena | Emakume/ panpina bizidun sexualizatuak | Kodea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | Homologazio data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 36 | CINEFANS | EZ | 0 | 23 | 24 | 34 | 81 | 2017/05/31 |
| 37 | MULTILINK KING SE 3/3000 BS XP | BAI | 4.1 | 19 | 41 | 20 | 80 | 2019/01/23 |
| 38 | M-BOX X | BAI | 4.1 | 10 | 54 | 15 | 79 | 2017/10/13 – 2022/04/21 |
| 39 | BABY FRUITS MIX | EZ | 0 | 8 | 63 | 7 | 78 | 2020/03/03 |
| 40 | MAGIC CIRCUS WINNER | EZ | 0 | — | 24 | 28 | 77 | 2018/01/24 |
| 41 | ADMIRAL IV | BAI | 4.1 | 4 | 48 | 24 | 76 | 2016/01/22 |
| 42 | BILL ROULETTE LUXE X PUESTOS | EZ | 4.1.0 | 14 | 43 | 19 | 76 | 2014/07/21 – 2016/07/28 |
| 43 | UNIDESA VIKINGOS | BAI | 1 | 11 | 35 | 26 | 72 | 2016/12/27 |
| 44 | YETIMANIA 500 | BAI | 1 | 11 | 35 | 26 | 72 | 2014/12/05 |
| 45 | GIGAMES JUNGLA CLUB | EZ | 0 | 16 | 28 | 21 | 65 | 2014/09/12 |
| 46 | MULTILINER | EZIN DA IKUSI | 4.3 | 17 | 33 | 13 | 63 | 2012/07/06 |
| 47 | KONG-CHITA | BAI | 1 | 2 | 39 | 20 | 61 | 2020/07/14 |
| 48 | GIGAMES ATLANTIDA | BAI | 1 | 10 | 23 | 27 | 60 | 2015/05/07 |
| 49 | RF CLEOPATRA | BAI | 1.0 | 8 | 46 | 6 | 60 | 2018/09/10 |
| 50 | GIGAMES RUTA 777 | BAI | 1 | 12 | 22 | 24 | 58 | 2013/01/29 |
| 51 | GUAYKIKI WINNER | BAI | 1 | 7 | 31 | 20 | 58 | 2019/03/29 |
| 52 | LAS PIRATAS DEL CARIBE | BAI | 1 | 3 | 31 | 24 | 58 | 2014/06/16 |
| 53 | MULTI LINK SE 3_3000 BS XP | BAI | 4.1 | 8 | 34 | 15 | 57 | |
| 54 | NOVO LINE POWER LINK MPX | BAI | 4.1 | 15 | 24 | 17 | 56 | 2019/12/16 – 2021/04/30 |
